

Herritarrak

2026ko martxoa

5.alea

INFORMATZEN

www.berastegi.eus

Udalgintza informazioa 2023-2027



2026ko UDAL AURREKONTUA

GASTUAK

I. Pertsonal-gastuen atalean, udal-langileen soldatei urtez urte egokitzen zaien igoera aplikatu diegu eta kultur, kirol eta gazteriako dinamizatzaile-lanpostuari balorazioa egin eta dagokion egokitzapena egin diogu.

II. Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuen atalean, hainbat azpiatal ditugu: gobernu-organoak, administrazio orokorra, hirigintza, gizarte-zerbitzuak, kultura-kirola eta gaztedia, udal-liburutegia, haurreskola, J. A. Muñagorri eskola, Urepele Elkartea, pilotalekua, Zubizabaleta, Ategi, kaleko argiteria, bide publikoak, kale-zaintza eta lorategiak, biltegia eta brigada, hilerria eta hileta-zerbitzuak eta Elduako kultur etxea. Eraikinen mantenua eta hornidura indartu dugu, baita kulturaren eta berdintasunaren arloak ere.

III. Mailegu-interesen atalean, udaletxea eraberritzeko eskatutako milioiko maileguaren truke bankuari urtean interesetan ordaindu beharreko kopurua azaltzen da. 2026an 2025an baino 3.000 € gutxiago ordaindu beharko ditugu; hau da, 6.000 € guztira. 2026ko ekainaren 22an bukatuko dugu mailegua ordaintzeaz.


IV. Transferentzia arrunten atalean, Udalak hainbat zerbitzu jasotzearen truke azpikontratatu dituen enpresei edo hitzarmen bidez lotutako erakundeei egiten dizkien ordainketak sartzen dira: herriko ingurumen-teknikariari, Tolosaldeko Zabor Mankomunitateari eta Hiltegi Mankomunitateari, Tolomendiri, Tolosaldea Garatzen, Goienerri, Udalbiltzari, EUEDELi, Gipuzkoako Baso Elkarteari, UEMArri eta Tolosaldeko Komunikazio Taldeari eginiko ordainketak, larrialdi-laguntzak, herriko elkarteei emandako laguntzak eta euskara- eta bertsolaritza-ikastaroei emandakoak. 6.000 € gehiago aurreikusi ditugu atal honetan, egin beharreko ikusi ditugun egokitzapenak direla eta.

VI. Inbertsio errealen atalean, 2026an aurrera eramateko asmotan ditugun proiektuak sartzen dira. 355.500 € aurreikusi ditugu ondorengo hauetan inbertitzeko: larre komunaletan 30.000 €, zenbait herri-bideren konponketa-lanetan 30.000 €, tokiko garapenari begirako komunikazio-planetan 20.000 €, herriko saneamenduan 10.000 €, Zubizabaletako eraldatze-zentroan, sukaldea

eta jangela egokitzen, 15.000 €, mugak digitalizatzeko lanetan 30.000 €, irisgarritasunean 10.500 €, Etxe Aurre eta Etxe Luze arteko aparkaleku berriari 180.000 € eta Izotzaldeko argiterian 30.000 €.

VIII. Udalak finantza-aktiborik, hau da, errentagarritasun ekonomikoa lortzeko finantza-ondarerik (akziorik, bonorik...) ez duenez, zeroan dago atala.

IX. Mailegu-amortizazioen atalean, gure kasuan, udaletxea eraberritzeko eskatutako maileguaren amortizazioa legoke. Aurten 43.000 €-ko kopurua ordaintzea aurreikusi dugu, aurreko urteetan baino 37.000 € gutxiago. Aurreratu bezala, 2026ko ekainean likidatuko dugu mailegua.



SARRERAK

I. Zuzeneko zergen atalean, landa-izaerako ondasun higiezinaren gainekoa, hiri-izaerako ondasun higiezinaren gainekoa, trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoa, hiri-izaerako lurren balioaren gehikuntza edo plusbaliari dagokiona eta jarduera ekonomikoen gainekoa leudeke. 2026an zuzeneko zergetatik jasotzea aurreikusi dugun kopurua 247.000 €-koa da.

II. Zeharkako zergen atala, berriz, eraikuntza- eta instalazio-lanei ezartzen zaien %4ko zergari dagokio. Honetan, 2026an, 47.912,25 € jasotzea aurreikusi dugu.

III. Tasa eta bestelako zergen atalean, zenbait zerbitzu eskaintzeagatik Udalak kobratzen dituen zenbatekoak leudeke: zabor- edo hiri-hondakinak biltzeagatik tasa, hilerriko tasa, fotokopiak egiteagatik eta faxa erabiltzeagatik, etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokiona, Ategiako etxebizitza babestuen erabiltzaileek ordaintzen dutena, segregazio eta etxebizitzaren lehen erabilera-baimenengatik tasak, postuak jartzeagatik, lur-lurrazpi edo lurgain publikoa erabiltzeagatik, udal-jabetzako lurren erabileragatik, *Goizak Lagunartean* zerbitzuaren gainekoa, gimnasioa erabiltzeagatik kuota eta telekomunikazio-operadoreei kobratzen zaizkien

tasak. 2026an 202.850 € jasotzea aurreikusi dugu.

IV. Transferentzi arrunten atalean, foru-fondotik edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtsetatik urtero jasotzen dugun diru-kopurua da nagusi. 2025ean 200.000 €-ko gehigarria jaso genuen, 1.100 biztanletik beherako udalerrria izateagatik.

2026ra begira, datuak eguneratu eta 1.111 biztanleko kopurua oinarri hartuta, 70,000 € inguru gutxiago jasotzea aurreikusi dugu. Beraz, foru-funtsetatik guztira 1.160.000 € inguru jasoko ditugula aurreikusi dugu.

Atal honi dagokion gainonerakoa honako hauek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzak gizarte-zerbitzuetarako eta Osakidetzak herrian osasun-zentroa edukitzeagatik ematen dizkiguten laguntzek, Aldundiak etxez etxeko laguntza-zerbitzurako ematen duen laguntzak eta urtean zehar jasotzen ditugun gainerako dirulaguntzek.


V. Ondarezko sarreraren atalean, Udalak bankuan dituen deposituen truke jasotzen dituen interesak sartzen dira, eta ez dugu aparteko sarrerarik aurreikusi.

VII. Kapital-transferentzien atalean, ez dugu diru-sarrerarik aurreikusi.

VIII. Finantza-aktiboen atalak, besteak beste, Udalak udal-funtsen gerakinetik hartu eta aurrekontuan kontenpla lezakeen kopuruari egiten dio erreferentzia. 2026ari begira, ez dugu aurreikuspen zehatzik egin, gerakinari dagokionez.

IX. Eta, finantza-pasiboen atalean, bankuei eskatzen zaizkien maileguak sartzen dira. Honetan ere ez dugu ezer aurreikusi.

2026ari begirako aurrekontua, horrenbestez, **1.747.276,39 €**-an itxi dugu.



ORDENANTZA FISKALAK

Zerga eta tasetan %2,8ko igoera izango dugu 2026an. Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFAk) %2 igo du balore katastrala, eta guk honekiko %0,8ko igoera ezarri dugu. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoan eta jarduera ekonomikoen gainekoan ere %2,8ko igoerari eutsi diogu.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergetan, 2025eko martxoaren 11ko ohiko udalbatzarrean onartutako udal-ordenantzak dioen moduan, etxebizitzetan obra txikiak egiteko alde aurreko jakinarazpenek 50 €-ko kostua izango dute.

Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik tasetan, Ategi etxebizitza babestuetako eta etxez etxeko laguntza zerbitzuko tarifetan ere %2,8ko igoera izango da.

Hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduari dagozkion tasetan ere igoera izango dugu: etxebizitzetarako dagokienean 90etik 95 €-rako; eta, komertzio eta edaritegiei dagokienean, 152tik 157 €-rako.

Udal-jabetzako landa-bideen erabilerari dagozkion tasetan ez da aldaketarik izango; baina Gipuzkoako Boletín Ofizialean 2025eko otsailaren 25ean iragarri zen moduan, fidantzak kalkulatzeko sisteman aldaketak izango dira, beti ere gutxiengoa eta gehiengoa mantenduz.

Zubizabaletako kirol-instalazioak erabiltzeagatik tasak berdin mantenduko dira, baina altak eta bajak tramitzeko eta kobraketak egiteko modua birmoldatuko da.

Hainbat lokal erabiltzeagatik tasetan, aldaketa bakarra aurreikusi dugu, udaletxeko ganbararen erabilerari dagokiona. Irabazi asmoko norbanako edo enpresei orduko 20 €-ko tasa aplikatuko zaie; eta eguneko, gehienez, 150 €-koa.

Gainontzeko zerga eta tasak bere horretan mantentzea proposatu dugu.

UDAL-FUNTZIONAMENDUA

1.- Administrari-laguntzaile eta liburuzain aritzeko kontratazio berria: Irailean egin genuen kontratazioa; baina azaroan langileak baja eskatu zuen bere borondatez, iraupen luzeagoko lanpostu bat aukeran zuelako. Azaroan bertan beste langile bat kontratatu genuen aurrez sortuta genuen lan-poltsatik, 6 hilabeterako.

2.- Kultur, kirol eta gazteriako dinamizatzaile-lanpostuaren balorazioa: Premiaz jabetu eta kanpo-enpresa batek egin digu enkarguz; eta, balorazioa kontuan hartuta, dagokion maila onartu diogu lanpostuari.

3.- Kultur, kirol eta gazteriako dinamizatzailearen kontratazio-deialdia: Lanean ari den langileak haurdunaldiagatik baja hartzea aurreikusia dugunez, kontratazio berria egingo dugu epealdia hornitzeko.

4.- Haurreskola eta gimnasioko garbitzailearen kontratu-berritzea: Abenduaren 14an bukatzen zitzaion kontratua; eta, garbiketa-zerbitzu honen jarraikortasuna ezinbestekoa dugula ikusita, irailean sortu genuen lan-poltsara jo genuen. Lanpostua betetzen ari zen pertsona bera zegoen poltsan lehen lekuan, eta berari berritu diogu kontratua, behin-behinean lanpostu hutsak betetzeko lan-kontratuaren bidez. Berak jarraituko du lanean, lanpostuari buruzko beste edozein erabaki hartu bitartean.

5.- Idazkari kontu-hartzailearen jarraipena: Udal-idazkarien egonkortze prozesuaren ondorioz beste idazkari batek hartu du Berastegiko plaza baina aldi berean exzedentzia eskatu du beste plaza publiko baten jabe delako. Ondorioz eskaria egin dugu gaur egungo idazkari kontu-hartzaileak jarrai dezan eta eskaria onartu egin digutenez gaur egungoarekin jarraituko dugu orain arte bezala bitarteko izaerarekin.

HIRIGINTZA

6.- Berastegiko irisgarritasun unibertsalaren plan Integral berria: Proposamena herriko eragileekin partekatu eta haien ekarpenak jaso eta erantsi ondoren, irailaren 29an aurkeztu genuen planaren behin betiko bertsioa udaletxean.

7.- Eskola eta ingurua berritzeko proposamenaren aurkezpena: Abenduaren 17an aurkeztu genuen frontoia, eskola eta ingurua eraberritzeko asmoz herritarrengandik jasotako proposamenekin osatutako lanketa. Aurrera begira, eremu bakoitza lan-taldeetan lantzea adostu genuen.



8.- Izotzaldeko argiteria osatzen joateko lanak: Iturritza eta Arbide arteko argiteri berrirako instalakuntza egina dago. Konexioa egitea bakarrik falta da, eta Korostel enpresak berehala egingo duelakoan gaude. Lanen kostua 72.537,10 €-koa izan da, eta Ereinetik lan hauetarako jaso dugun dirulaguntza 37.914,04 €-koa.

9.- Zubizabaletako eraldatze-zentroko obra zibila: Antio enpresa ari da sukaldea eta jangela ezartzeko lanetan, eta bukatzeaz ditu lanak. 140.000 €-ko kostua izango dute lanek. LEADER deialdiaren barruan eman diguten dirulaguntza 69.667,08 €-koa izan da, bi urtetan jasotzekoa: 54.339,54 € jaso genituen 2025ean eta 15.326,54 € jasoko ditugu 2026an.

10.- Autokarabana-gunera iristeko seinaleak eta informazio-panela: Sarrerak eta irteerak errazteko jarri ditugu seinaleak. Hauekin batera, autokarabana-gunean zaborraren kudeaketa egokia bultzatzeko informazio-panela jarri dugu, herriari buruzko informazio-panelarekin batera. Lan hauen kostua 4.187 €-koa izan da.

BASOGINTZA eta INGURUMENA

11.- Larre komunalen inguruko urteroko batzarra:

Abenduaren 5ean egin genuen, eta herriko ganaduzaleek, Etorlurreko gerenteak eta teknikariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko mendi eta larreen arduradunak eta Udaleko ordezkariok hartu genuen parte bertan. 2025ean egin diren lanen errepasoa eta larrealdiaren balorazioa egin genuen, eta positiboa izan zen bi arloetan ere.



Aurrera begira, 2026an zehar lurren azterketaren emaitzaren araberrako ongarririketa bideratzea, desbroze edo mendi-garbitze lanetan jarraitzea eta Salontzo Larren basoa botatako eremuan, baso zati bat barruan dela, itxitura eraikitzea erabaki da.

Urteko larrealdirako izen-ematea egun horretan bertan ireki zen; eta, aurtengoan ere, ganadukopurua, behintzat, mantentzea aurreikusitako dugu.

KULTURA, KIROLA eta GAZTERIA

12.- 2025eko Kultur Astea: Bilerak irekia egin genuen herritarrekin antolatzen hasteko, eta urriaren 9ko asteburuan eman zitzaion hasiera Kultur Asteari, Argazki Rally herrikoiarekin. Urriaren 23tik azaroaren 2ra bi asteburuz izan ziren gainerako ekitaldiak: tartean, “Mama” laburmetraia, “Errio” ikus-entzunezkoa, ogia egiten ikasteko tailerra, mus-txapelketa, “Zorte txarreko otsoak” ipuin-kontaldia, Iruzta erromeri-taldearen emanaldia, “Promesarik txikiena” antzezlanak, “Bidea irekitzen Groenlandian” ikus-entzunezkoa, “Etxeko konpostaren truke, etxeko arrautzak” hitzaldia, ardo-dastaketa, xake-lehiaketa, “Hazia” antzezlanak eta Esanezin musika-taldearen kontzertua. Amaitzeko, berriz, Azoka Eguna, eta tartean gazta-, natilla- eta postulehiaketa, baita argazki-rallyko argazkien erakusketa ere. Azken momentuan animalia-azokak debekatu eta erakusketarik egin ezin izan genuenez, Luis Erasok bere egur-lanez gozatzeko aukera eskaini zigun.

Oso balorazio ona egin dugu Kultur Astearen inguruan, herritarren parte hartzea zabala izan baita ume nahiz helduentzat antolatutako ekintzetan. 9.166,79 €-ko gastua izan du Kultur Astearen antolakuntzak.

XXVII. Argazki-rally-a:

- 1.- Jon Eskudero
- 2.- Uxue Garmendia
- 3.- Irati Rekondo

I. Natilla-Lehiaketa:

1. - Ixiar Zubillaga
- 2.- Aitziber Astigarraga
- 3.- Mireia Garaiburu

XXXIV. Gazta-lehiaketa:

- 1.- Iker Ugartemendia
- 2.- Iraitz Garaiburu
- 3.- Hipoli Lasarte
- 4.- Lukas Etxeberria
- 5.- Jose Inazio Ugartemendia

XXVII. Postu-lehiaketa:

Sariduna: Sebas Gartziaarena

13.- Go!azen eta Irabazi arte! telesailen aurrestreinaldiak: Azaroaren 7an Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMAren) eskutik Golazen-en 12. denboraldiko 1. kapituluaz gozatzeko aukera izan zuten herriko gaztetxoek udaletxean; eta urtarrilaren 30ean berdin egin ahal izan zuten Irabazi Arte-ren 5. denboraldiko 1. kapituluarekin. Arrakasta itzela izan zuten saioek!

14.- AROA plana: Abenduaren 1ean elkartu ginen euskara indarberritzeko euskaldunok ahalduzko marko estrategikoaren planaren lehen pausoak emateko, UEMArekin eta herritarrekin. Berastegin euskarak gaur egun bizi duen egoeraren argazkia egin nahi dugu, datozen urteetarako ekintzak diseinatzeko. Herritarrekin elkarlanean heldu nahi diegu euskararen inguruko erronkei.



15.- Abenduak 3. Euskararen Nazioarteko Eguna: Urtero moduan ospatu genuen eguna. 16:30ean frontoian elkartu eta “N” hizkia altxatu eta irudikatu genuen bildutakoaren artean, Tolosaldeko 28 herriek elkarrekin osatu genuen “Euskararen etorkizuna jokoan!” esaldirako.

16.- Gabonetako kontzertua: Abenduaren 20an San Martin Toursekoaren elizan Ordiziako Emotio abesbatzaren kontzertua izan genuen.

17.- Olentzero eta Mari Domingiren eta Errege Magoen etorrerak: Abenduaren 24an goizez gabon-eskean ibili ziren Guraso Elkartekoak batetik eta Urepele Elkartekoak bestetik, herrian zehar. Arratsaldean, aldiz, Olentzerok eta Mari Domingik egin ziguten bisita 18:00etan, astoaz lagunduta. Eta urtarrilaren 5ean, hiru Errege Magoen etorrera izan genuen, arratsaldeko 18:30ean. Guztiei ere harrera beroa eskaini zieten herritarrek, txiki eta handiek.

18.- Neguko Goizak Lagunartean: Gabonetako oporretako goizak lagunartean pasatzeko aukera eskaintzen die zerbitzuak herriko txikienei, eta aurten 8 egunez 29 hurrek hartu dute parte. 4 hezitzaile kontratatu genituen zerbitzua aurrera eramateko. Balorazio oso ona egin dugu haren inguruan.

19.- Gaztelekukoan irteera: Abenduaren 30ean, plana errepikatuz, Iruñeko Salting parkera egin zuten irteera. 28 gaztek hartu zuten parte. Parkerako sarrera norik berea ordaindu zuen eta eta joan-etorrirako autobusaren gastua (500,01 €) Udalak hornitu zuen.

20.- Urtezehar krosa: Abenduaren 31n urteroko legean Urepele Elkartek antolatuta egin ohi den krosean 168 korrikalarik hartu zuten parte azken edizioan, eta beste urte batez parte-hartzaile kopuruaren errekorra hautsi.

21.- Areto Futbol Txapelketan irabazle: Herriko nesken Tigre Txikiak taldeak Garajes Tolosa XLIII. Areto Futbol Txapelketa irabazi du alebinen mailan, Gabon hauetan. Bejondeizuela, neskak!



22.- Inauteriak: Urtarrilaren 12an egin genuen herriko Inauteriak antolatzeko bilera irekia herritarrekin. Otsailaren 5, 6 eta 7an ospatu ditugu aurtengoak. Ostegunez txistor-jana egin zen Gaztainondo Elkartean; ostiralez, berriz, eskolako haurren mozorro-desfilea, herriko dantzari txikien emanaldia eta pintxo-pote mozorrotua; eta, bukatzeko, larunbatez, arbiaren igoera, dantza-, antzerki-emanaldiak, herri-bazkaria, txaranga herrian zehar eta luntxa eta DJa Urepele Elkartean.

MOTZEAN

23.- Andragoraren aurkezpena: Urriaren 17an izan genuen Andragora edo Tolosaldeko emakumeen etxearen aurkezpen-saioa udaletxean. Ateak zabalik ditu arreta eta laguntza jaso nahi luketen eskualdeko emakume guztietantzat: astelehenetik ostegunera 10:00-14:00 eta 16:00-19:00 bitartean, eta ostiraletan 10:00-14:00 bitartean. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Andragorak, eta haren inguruko informazioa zabaltzen jarraituko dugu Udalaren sare sozialetan, Berastegiko Berriak whatsapp-taldean eta Askamare herriko talde feministaren bidez.



23.- Kutxabank, UEMA eta Berastegiko Udala: Azaroaren 20an sinatu genuen Tolosako udaletxean eskualdeko Kutxabanken bulegoetan herritarrek zerbitzua euskaraz jaso ahal izango dutela ziurtatzen duen hitzarmena.

24.- San Anton eta San Sebastian egunak: Urtarrilaren 17an eta 20an ospatu genituen, hurrenez hurren. Meza izan zen bi egunetan, San Anton egunekoa San Antongo ermitan bertan, eta San Sebastian egunekoa Erretoretzeko kapilan.

25.- Bihotz-birikak bizkortzen eta desfibrilagailua erabiltzen ikasteko saioa: Urtarrilaren 28an (goizez, 9:00-12:00 bitartean) eta 29an (arratsaldez, 17:00-20:00 bitartean) egin ziren formakuntza-saioak udaletxeko erabilera anitzeko gelan. Hasierako formakuntza-saioa edo hasiberriena 3 orduko saioa izan zen, egun batean edo bestean, goizez edo arratsaldez egitekoa. Aurrez programa honetan parte hartu izan dutenentzako 2 orduko birziklatze-saioa ere izan zen, urtarrilaren 28an, arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara.